

Bortzirietatik

Lotsagabe heldu da gazte talde bat Nafarroako Bortzirietatik.

Ideiak argi eta lanerako gogoz, Kaxerna Aisialdi Taldearen inguruan elkartu eta gazteentzako aldizkari bat argitaratzeko martxan jarri dira. Lehen alea kaleratu berri dute —koloreetan eta eduki ugariz jantzita dator—, eta gazteen erreferentzia izan nahi du euren eskualdean.

Lotsagabe da, Bortzirietako gazteen aldizkaria.

Jon maya

Lapurdi eta Gipuzkoa arteko mugan daude Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesaka herriak. Bortzirietatik izeneko eskualdea osatzen dute, eta 8.000 biztanle inguru biltzen dituzte guztien artean. Lotsagabe sortzeko ideia Berako Kaxerna Aisialdi Taldeetik dator, baina eskualdeko gazteekin lan egiteko ohitura ere badute-nez, herri guztietara zabaldu dute aldizkari berriaren egitasmoa.

Kaxernako zuzendaritzak eta begiraleek sortu eta landu zuten ideia, eta orain zortzi gazte osatzen dute erredakzio taldea. Barkatu ama Jon Abril bertako kidearekin mintzatu da, eta aldizkariari buruzko xehetasun guzti-guztiak azaldu dizkigu. Izenak dioen bezala «lotsagabe» heldu direla dio: «Herrian egiten diren kultur ekitaldietan gazte jende askok ez du parte hartzen, aktiboki behintzat, eta guk nahi genuen lotsa horiek kendu eta gaintitzea; halaber, iruditzen zaigu gazteek erakutsi behar diogula herriari dugun sormen ahalmena, eta inoiz baino aukera gehiago ditugula gauzak egiteko». «Adinak ere hala eskatzen duelako», gazteek lotsagabe aritu behar dutela dio Jon Abrilek.

Euskaraz argitaratzea ez da kasualitatea, eta helbu-

▶ ttipi ttpa



tan banatuko da. Aurretik Bortzirietara mugatuko dute hedadura, baina etorkizunean Nafarroako mendialdeko beste eskualde batzuetara zabaltzeko asmoa ere badute. Urtean lau aldiz kaleratuko da Lotsagabe.

Ulerterrazagoa gerta dadin, Donostiako Gaztetxearen ldoari jarraitzen dio Lotsagabe-k. Jonek, ordea, ezberdintasun oso nabari bat topatzen du bi aldizkariaren artean. «Hau profesional talde bat dago, eta guk gure denbora librean egiten dugu aldizkaria». Gazteentzako aldizkari mota honek etorkizunerako ate zabal bat irekitzen duela ere baderitzo: «Beharrezko ere bada: hain zuzen, orain gutxi jardunaldi batzuetan ikusi genuen Nafarroako mendialdeko gazteek ia ez dutela euskarazko produkturik kontsumitzen, eta hau euskara hedatzeko tresna bat izan daiteke; baina hori bakarrik ez, zeren gazte mugimendua pizteko era bat ere bada. Oraindik gutxi jorrotutako esparru bat da hau, eta eremu zabala dago bertan lantzeko».

Tokian tokiko informazioa jorrotuko du hein handi batean, baina gazte jendeari interesatuko zaizkion beste gai eta erreportaje

ru nagusia eskualdeko gazteei euskarazko produktu bat eskaintzea da. Bestalde, gazte

ekimena bultzatzeko asmoa ere badu aldizkariak. Bi modutara gauzatu nahi dute asmo hori: «Batetik, jendeak aktiboki parte har dezala lortu nahi genuke, eta hortik egitasmo berriak sortzea; bestetik, aktiboki parte hartzen ez duenak ere gure berri izan dezan nahi dugu; horriengana ere iritsi nahi genuke».

24 orriko aldizkaria da Lotsagabe. Koloreetan eta diseinu erakargarri batekin dago egina (Allende Arnaiz Barkatu amako diseinatzaileak egin du), eta 3.000 aleko tirada du. Ttipi-Ttpa aldizkariarekin batera banatuko da, eta ziurtatuta dute Bortzirietako bizilekuen %90etara helduko dela. Horrez gain, ostatu, ikastetxe, liburutegi eta beste leku publiko batzue-

batzuk ere landuko dira. Esate baterako, ale honetan antimilitarismoa, informatika, sexua, telebista eta beste hainbat gai jorrotzen dira. Jon Abrilek ez du ahantzi nahi, hala ere, eskualdearekiko lotura: «Beti esaten da inor ez dela profeta bere herrian, baina gu saiatuko gara eskualdean kirolari, kantari, artista edo beste inor lan garrantzitsu bat egiten ari denean jendeari jakinarazten». Ohiko erredakzio taldeaz eta sailez gain, laguntzaile sare zabala izango du Lotsagabe-k. «Lan kontuenatik-edo ezin dute Beran egon eta eguneroko lanean parte hartu, baina proiektuarekin bat datoz bete-betean, eta beste lan batzuk egingo dituzte».

Kaxerna Aisialdi Taldearen ekimena da aldizkari berri hau. Urtean zehar ekintza ugari antolatzen dituzte Berako haur eta gazteen artean, eta aldizkaria egitasmo zabal baten zati bat besterik ez da. Europako Batasunaren Gaztedia Europarekin programaren bidez diru laguntza oparoa jaso dute aldizkaria egiteko, eta atzerrian ere ibili dira —Suedian—, hango gazte taldeek nola lan egiten zuten ikusteko.



Gazte mugimendua bultzatzea ere helburu du aldizkariak